

IL AZALPEN PROBA • *Atsekabe zaitut*

---

Kodea\* ..... Taldea .....

\*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko

<b>E</b> dukia		/ 2,5
<b>M</b> oldea		/ 2,5
<b>Z</b> uzentas.		/ 5
<b>GUZTIRA</b>		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua:  
.....

Kamisetan eta azalaren azpitik, Hamarren behatz puntak sentitzen dutena iristen zaio Emeri. Bizi grina. Eta poza. Bere poz distiratsu, ia jasangaitz eta hiltzailea. Zenbat maite duen momentu horretan. Azala erantziko luke beregandik hurbilago egoteko. Ustelkeria txiki guztien gainera, Hamar bere bizitzako garaipen guztiak dira, barre ederrenak, begiratze hutsarekin ulertzen diren sekretuak) eta momentu horretan, lagun batek beste bat inoiz maitatu duen baino gehiago maite du. Estuegi besarkatzen du, arnasa hartzen utzi gabe.

—Saihetsak hautsiko dizkidazu, jefa.

Eta birrindu egingo zaitut. Ez pentsa birrintzeko beste maite ez zaitudanik.

Teilatu artetik saltoka laburtzen dute etxerako bidea.

IL AZALPEN PROBA • <i>Atsekabe zaitut</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta marginak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

Maria deitzen zen, dena aldatu zuen neskatoa. Ez zen besteak, atsekabearekin itotako beste dozenaka, ehunka, mila gizon-emakumeak baino zerago, bereziago, ederrago, gazteago, hunkigarriago. Halako neskato bat zen, Maria izenekoa, behin ezkondu zena eta orain bihotza hautsia zuena. Maletarekin zegoen zain, taxia noiz etorriko. Gorritz zeramatzan azazkalak eta Katu begiekin begiratu zion Emek, kalearen beste aldetik. Kolore polita zen, azazkalena, baina apurtzen ari zitzaion. Pintura merke horietako bat izango zen, edo aspaldi emana. Hobeto ikustearren hurbildu zitzaion neskatoari, lau hankatan. Ez bere enkargua zelako edo beste ezerगतik. Kolorea ikusteko, besterik ez. Odol koloreko, gerezi helduen kolorekoa zen eta ikusi egin nahi zuen.

IL AZALPEN PROBA • <i>Atsekabe zaitut</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta iritzia ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300-400** hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

Egia esanda, mokadu hauek zehazki zer duten ez nezake esan, baina zeruko gutuziak dira... mmm!

—Tira, hau ardo xuriari laguntzeko baino ez da... –gero, erlojuari begiratuta esan zuen:

—Zazpi eta erdiak, iritsi da afaltzeko ordua. Ikuskizuna hastera doa. Goazen geure palkora! Gela berean zegoen mahai luzearen muturrean jesartzera gonbidatu zuen laguna. Arnaga mahaiburu jarri zen; Fran, haren eskuinaldean eserarazi zuen.

—Barkatu mahaiburuan jartzen banaiz, baina nire ohiko lekua da eta, dakizunez, ekanduei oso atxikia nauzu.

—Bai, noski, hala behar du gainera.

Arnagak iragarria zuen zentzumen ikuskizunak aise gainditu zuen Franek itxaron zezakeen guztia: kolore nahiz zapore anitzeko barazkiz, fruituz, landare orriz, belarrez eta lore hostoz egindako entsalada, saltsa arin bizigarri batez atondua; ahate-gibelez edota itsaskiz beteriko barazkiak, bakoitza landare desberdinek lurrineztatutako uretan arinki egosiak edo lurrinetan beratuak; hauetako batzuk beroak, beste batzuk doi-doi epelak; bieirak labean; ondoren oilagorra Périgeux erara egina; bukatzeko, erbia saltsa eztiarekin. Den-dena, noski, ardo bikain jaki bakoitzari egokien zetorkionez lagundua.

—Txokolate zalea zara? –galdetu zion Arnagak gonbidatuari azkenburukoaren atarian.

—Haren maitale itsua nauzu!

—Beraz, gustuko izango duzu orain datorrena.